

# BOOBIZI

## Funtsezko jarduerak

Ekoiztuko ditugu bi bularretako ezberdin, protesirik gabeko eta protesirik gabeko. Azken modelo honek bi bertsio izango ditu, bezeroak ezkerreko edo eskuineko bularra galdu duen arabera. Protesi externoaren bularretakoa, protesia kopa batean edo bestean jartzeko aukera izango du. Oinarrizko koloretan ekoiztuko ditugu: zuria, beltza, eta marroi tonalitate ezberdinak, besteak beste. Kasu puntual batzuetan, adibidez, beste marka batekin kolaborazioa egiterakoan edo diseinu berezi bat egiterakoan, barruko jantzi osoaren konjuntua izateko azpiko galtza bat ere ekoiztuko dugu.

Gure proiektuarekin gizartean dagoen arazo bat konpontzea dugu helburu. Arakatu ostean, ikusi genuen bularreko minbizia sufritu duten emakumeak eta titia bereraikitzen ez duten emakumeak, bularretako berezietan diru asko gastatu behar dutela. Ondorioz, eta arazo honi aurre egiteko, bularretako bereziak merkeagoak eta edonork erosi ahal izateko egitea erabaki genuen.

Plataforma edo sareko jarduerari dagokienez, webgune bat irekitzeko asmoa dugu. Bertan produktua saltzeko; bezeroek erraztasun osoz eros ditzaten hauek, eta bezeroaieei nobedade berri emateko. Halaber, kexkak eta zalantzak argitzeko txata egongo da bertan eskuragarri eta nahiz izanez gero, erosleek bereganatutako bularretakoaren iritzia edo izandako esperientzia partekatu ditzakete. Modu horretan, bularretako minbizia izan duten emakumeak ezagutzeko eta haiekin harremanetan jartzeko aukera izango zuten eta guk, eskaintzen duguten informazio horretaz balaituta, produktua ahal den heinean, pixkanaka-pixkanaka, hobetzen joango ginen.

Baita sare sozialak ere erabiliko ditugu; *Facebook*, *Instagram*, *TikTok* eta *Twitter* bereziki, hauek ezagunenak eta erabilgarrienak baitira gaur egun. Hauekin inkestak egiteko nahia daukagu, bularretakoak gure kontsumitzaileen gustuekiko ahal den leialen izan ditzaten. Gainera, hedabideak guztiz onuragarriak izango zaizkigu gazteagoa den jendarteko bati irekitzeko eta munduko edozein lurraldean bizi den emakume batengana iristeko. Uste dugu teknologia berriek abaintaila anitz dituztela enpresa bat sortzeko unean eta gure proiektua abian jartzeko oso

baliagarriak eta mesedegarriak izango zaizkigu; batez ere, gure bezeroa konprentituta, babestuta eta integratuta sentitu dezan.

Jarduera batzuk beste enpresa batzuegan utziko ditugo. Baina, *know how* ekintzak gure esku egongo dira. Guk daukagun abantaila, bezeroekiko harremana eta jakinduria da. Batik-bat gertu bizi izan ditugun gertaerekin nola sentitzen diren eta nola jokatu badakigulako. Baita enpresa behin martxan jarrita bezeroekin izango dugun harremanagaitik ere; bai txatez, bai sare sozialetatik izango dugun kontaktuarekin.